

DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2023

BIOEF

1. Esklerosi anizkoitzari buruzko ikerketa-proiektuetarako emango dituen laguntzak 2



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Esklerosi anizkoitzari buruzko ikerketa-proiektuetarako emango dituen laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko uztailaren 11koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez BIOEF Berrikuntza, Ikerketa eta Osasunaren Euskal Fundazioak esklerosi anizkoitza gaixotasunaren gainean burutzen diren ikerketa-proiektuetarako emango dituen laguntzen deialdia egiten baita.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

Deialdia:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/07/2303614a.pdf>

Ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/12/2305609a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduak esklerosi anizkoitzaren arloko ikerketarako eta osasunaren garapenerako dirulaguntzen deialdia eta emakida arautzen ditu, objektibotasunaren, norgehiagokaren eta publizitatearen printzipioen arabera. Haren helburua da ikerketa biomedikoa eta osasunaren garapena sustatzea esklerosi anizkoitzaren arloan.

Deialdiak esklerosi anizkoitzari buruzko ikerketa biomedikoko proiektuak finantzatzen ditu. Proiektu horietan, ikertzaile taldea aintzat hartuta, ikertzaile berriak eta ohiko ikerketa-taldeak sustatzen dira. 2 edo 3 urteko iraupena dute.

Laguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez ematen dira, eta lehentasuna ezartzen da aurkeztutako eskaeren artean, ebaluazioa eta hautaketa egin ondoren. Ebaluazioak eta hautaketak elkarren segidako bi fase ditu: proiektuen ebaluazio zientifiko-teknikoa, kanpoko ebaluatzaile independenteek egina, eta Balorazio Batzordearen ebaluazioa, aginduan zehaztutako irizpide eta balioen arabera (puntuazioa).

Deialdia BIOEFen helburuaren barruan kokatzen da; alegia, Osasun Sistemaren ikerketa sustatzekoan, biztanleen babesean esku hartzeko gaitasunak garatzeko eta etengabe hobetzeko tresna gisa.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

12 laguntza-eskabide aurkeztu ziren, eta haietatik 8 finantzatu ziren, ebaluazio-prozesua gainditu ondoren. Deialdiaren zenbatekoa 994.739,37 €-koa izan zen, eta 8 proiektu onuradunetara bideratu zen.

Osasun-arloko ikerketa-proiektu horiek finantzatuta, honako hauek bultzatu nahi dira: medikuntza pertsonalizatuan aurrera egitea, prebentzioa eta diagnostiko goiztiarra hobetzea, tratamendu berriak ematea eta osasunari aplikatutako teknologia erabiltzea, eta pazienteen laguntza eta prestazio psikosoziala hobetzea.

2-3 urteko iraupena duten proiektuak finantzatzen ditu laguntzen deialdiak. Dirulaguntza jaso duten proiektuen urteko jarraipena egiten da, urteko memoria zientifikoa eta memoria ekonomikoa aurkeztuz, proiektuaren egoera azaltzeko. Proiektuak bukatutakoan, amaierako memoria zientifiko eta ekonomikoa bidaltzen da, lortutako helburu zehatzak banakatuz eta egindako gastuak zehatz-mehatz justifikatuz.

Ikerketarako laguntzen deialdiak gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen ere laguntzen du, neurri hauen bidez (bi alderdi horiek deialdiaren oinarrietan sartuta daude):

- Ikertzaile berriak sustatzeko modalitatean, alderdi hauek hartzen dira kontuan (oinarrien aginduaren 4. artikulua):

“... 1.– Ikertzaile emergenteak sustatzea: ikertzaile nagusia (IN) 1978an edo geroago jaioa izaki, lehenago IN gisa lehia-deialdi bidez finantzatutako proiektuetan parte hartutakoa ez den taldeen proiektuak. Epea zenbartzeko, egoera hauek hartuko dira kontuan:

a) Amatasunaren edo aitatasunaren ondorioz hartutako atsedenaldiak, Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean babestutakoekin bat. Seme-alaba bakoitzeko urtebete luzatuko da.

b) Eskatzailearen gaixotasun edo istripu larria, medikuak hiru hileko edo gehiagoko baja emanda. Urtebete luzatuko da epea.

c) Mendekotasuna duten pertsonen emandako arreta, hiru hileko tarte batekoa gutxienez, bat etorritik Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean xedatutakoarekin. Urtebete luzatuko da epea. ...”

- Proiektuen ebaluazioan, genero-ikuspegia hartzen da kontuan (oinarrien aginduaren 10.3 artikulua):

“... 5) Proposatutako ikerketak arreta sanitariorako irispidean eta gaixotasunaren diagnostikoan edo tratamenduan gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasunak hartzen ditu kontuan: 3 puntu gehienez. ...”



Laguntzen deialdia jasotzen duen programa ekonomikoaren helburuen, ekintzen eta adierazleen betetze-mailari dagokionez, hona hemen lortutako emaitza:

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Deialdira aurkeztu diren proiektuen kopurua (esklerosi anizkoitza)	20	12
Diruz lagundu beharreko proiektuen kopurua (esklerosi anizkoitza)	10	8

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundu beharreko proiektuen kopurua (esklerosi anizkoitza)	8	8